

eman ta zabal zazu




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# SIZILIAKO HONDAMENA

---

PELOPONESOKO GERRAREN GAKOA?



Lorea Aparicio Larburu

Historia, 4.maila.

Gradu Amaierako Lana

Denis Álvarez Pérez-Sostoa

Ikasketa Klasikoak saila

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>5</b>
<b>2. GERRAREN AURREKARIAK</b> .....	<b>6</b>
2.1. Atenas eta Espartaren hegemoniak.....	6
2.2. Gerraren kausak.....	7
2.3. Gerra Arkidamiarra (K.a. 431-421).....	9
2.4. Niziasen bake ituna (K.a. 421) .....	10
2.5. Gatazken susperraldia: Mantineako bataila (K.a. 418).....	11
<b>3. SIZILIAKO ESPEDIZIOA (K.a. 415-413)</b> .....	<b>12</b>
3.1. Atenastarrak eta sirakusarrak.....	12
3.2. Kanpainaren hastapenak .....	13
3.3. Sirakusako setioa .....	14
3.4. Bigarren espedizioa .....	18
3.5. Atenastarrak ihesean.....	23
3.6. Atenastarren errendizioa.....	25
<b>4. ONDORIOAK: GERRA AMAIERA (K.a. 404)</b> .....	<b>25</b>
4.1. Siziliako espedizioko huts egiteak.....	25
4.2. Atenastar flotaren hondoratzea .....	26
4.3. Atenasen gainbehera.....	27
<b>5. BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>29</b>

## Laburpena

K.a. V. mendean zehar Greziako bi potentzia nagusiak, Atenas eta Esparta, Peloponesoko Gerra deritzon lehian murgildu ziren 27 urtez. Bi hirien arteko liskarrak ezagunak ziren jada, bizimodu guztiz bestelakoa zeramaten eta bakoitzaren aliantzak ere ezberdinak ziren. Arrazoi desberdinak zirela eta, azkenerako K.a. 431ean gerra piztu zen, hamar urtez iraungo zuen gerra Arkidamiarrari hasiera emanaz. Atenastar eta lazedemoniarren arteko gatazkak eman ez ezik, aliatuak eta etsaiak ziren hirien arteko borroka ere gertatu ziren. Tebas eta Platearen arteko iskanbilek abiarazi zuten gerra, eta Kortzirako errebolta ere ez ziren mesedegarri izan. K.a. 427an begirada Magna Greziarantz zuzendu zuten atenastarrek, beren aliatuak bertako tira-biretan laguntzarren espedizioa prestatu zutelarik. Konpondu bezain pronto, Heladera itzuli ziren, bertan arazoak ez baitziren gutxi. Indarrak ahultzean, bi potentziek Niziasek proposaturiko bakea sinatu zuten K.a. 421ean, 50 urtez erasoaldia eten egingo zutela zin eginez. Baina gauzak hobetu barik, hiru urteren ondoren Mantineako batailan gerra berpiztu zen espartarren garaipen berri batekin. Batailak edonon, atenastarrek beren mugak zabaltzeko aukera aparta ikusi zuten garaia honetan, Siziliako espedizioa martxan jarritz. Hasieratik zalantza anitz sorrarazi zituen plana izanik, Alzibiades, Nizias eta Lamako estrategoen buruzagipean Sizilia konkistatzearen abiatu ziren K.a. 415ean. Greziarrek armada prestatzeari ekin zioten, sirakusarrak, lazedemoniarren aliatuak, beren hiria babesteaz arduratzen ziren bitartean. Alzibiadesek kanpaina utzi behar izan zuenean, armada espedizioaren alde ez zeuden estrategoen esku gelditu zen. Katanian kanpamentua finkatu ostean, sirakusarrak ezustean harrapatzeko saiakerak behin eta berriz egin bazituzten ere, arerio haiek garaitzea zaila zela frogatuko zuten. Sirakusa setiatzea helburu nagusian bilakatu zen, horretarako atenastar errefortzuak iritsi zirelarik irlara eta halaber, espartarren tropak ere bertan lehorreratu ziren haien aliatuak laguntzarren. Norgehiagoka anitzen ostean, atenastarrek ezin izan zioten aurre egin etsaien erasoari eta K.a. 413an, amore ematen amaitu zuten. Peloponeson, espartarrak nagusi sentituz, pertsiarren laguntzarekin Atenastar indarrak suntsitzeko azken erasoak egin eta haien garaipenarekin, K.a. 407rako gerra amaitutzat eman zen. Demokrazia sistemaren parean, Atenasen gainbehera eman zen, mendean zehar lortutako oparotasun oro itzali zelarik ezinbestean.

**Hitz gakoak:** *Tuzidides, Peloponesoko gerra, Sizilia, Sirakusa, Nizias, Gilipo.*

## **Abstract**

In the 5th century BC, the two main potencies of Greece, Athens and Sparta, fought against each other in the Peloponnesian war for 27 years. The animosity between both cities was widespread knowledge, their respective lifestyle and alliances being different. Finally, in 431 BC, many reasons sparked the war, starting the Archidamian war, which lasted ten years. Not only the Athenians and the Spartans were involved; their allied cities also fought each other. The battle between Thebans and Plataeans, as well as the revolt of Korkyra tilted the balance of the war. In 427 BC, the Athenians looked to the Magna Graecia, in order to help their allies in their own battles. Once resolved, they returned to Hellas, where there were many problems. When the forces were debilitated, both potencies signed in 421 BC the peace proposed by Nicias that they would not attack each other for 50 years. However, peace did not last, and three years later, the war reignited with the battle of Mantinea, which the Spartans won. Everywhere battles sprung, and Athenians saw the perfect opportunity to expand their frontiers, preparing an expedition to Sicily. Despite being a flawed and questionable plan from the beginning, behind the orders of the strategos Alcibiades, Nicias and Lamachus, in 415 BC Athens went to conquer Sicily. The Greeks prepared their armada, while the Syracusans, Sparta's allies, were protecting their city. Alcibiades was forced to leave the campaign, leaving the armada in the power of two generals who disagreed with the expedition. After setting camp in Catania, they tried to catch the Syracusans unprepared many times, but, as they found out repeatedly, it was not easy. The main objective became to set siege to Syracuse, and to accomplish the goal, Athenians reinforcements came to the island, as well as the Spartans tropes, to aid their allies. After some battles, Athenians could not face the enemy's attacks, and in 413 BC they finally gave up. In the Peloponnesian, seeing Athens defeated, the Spartans felt powerful and with the Persian's help, they began the final attacks, reaching victory and finishing the war in 407 BC. Together with the democratic system, Athens decayed, and all the glory reached during the century, perished without remedy.

**Key words:** *Thucydides, Peloponnesian war, Sicily, Syracuse, Nicias, Gylippus.*

## 1. SARRERA

Lan honen jomuga ezagutu ahal izateko ezinbestekoa izango da mendeetan zehar atzeranzko bidaiak egitea, zehazki K.a. V. mendean kokatu arte. Grezia Klasikoaren testuinguruan, K.a. 431-404 urte bitartean Peloponesoko Gerra piztu ziren. Garaiko bi hegemoniak ziren Atenas eta Esparta hiriak bata bestearen aurka lehiatu ziren, elkarrenganako areriotasunak gidatuta. Gerrotan, hiru fase nagusi bereizten dira, lehenengoa Arkidamiarra deritzona, K.a. 431-421 urteetan zehar eman zena eta Niziasen bakearen sinadurarekin amaitu zena; bigarrena, K.a. 418an Mantineako batailarekin piztu zena eta Siziliako espedizioak betetzen duena porrota izan arte, hots, K.a. 413 arte luzatuko dena; eta azkenik, hirugarrena, Dezeliako gerra bezala ezagutzen dena, batik bat Asia Txikian eman zena K.a. 413-404 urte bitartean. Nire lanaren ardatza Siziliako espedizioa izanik, bigarren fasean zentratuko naiz bete-betean, gerra honen aurrekariak eta ondorioak aipatuko ditudalarik. Norgehiagokan zehar, bando ezberdinen artean, tropak garaipenerantz bideratzen saiatuko ziren hainbat buruzagi eta estrategoa aurkituko ditugu. Atenastarren alde, Tuzidides bera, Perikles, Kleon, Eurimedonte, Sofokles, Nizias, Alzibiades, Lamako eta Demostenes jeneralek borrokatu zuten. Lazedemoniarren artean, Pausanias, Brasidas, Plistoanakte, Gilipo eta Lisandro ditugu. Azkenik, sirakusarren defendatzaile nagusienak, Hermokrates, Heraklides eta Sikano izan ziren.

Espedizioa arrakastatsua izaten ahalegindu baziren ere, porrota pairatu zuten. Gatazka hark beste bilakaera eta horrenbestez, emaitza ezberdina izanez gero, baliteke Atenasek bestelako zortea izan ahal zezakeela gerra handiaren amaieran, hau da, bertan ere garaile ateraz. Hauxe izango da beraz, nire lanaren muina: Siziliako espedizioaren nondik norakoak aztertu ez ezik, bertan emandako gertakariak gudaren amaierarako ezinbesteko garrantzia izan zutela azpimarratzen saiatuko naiz, azken emaitza definituko zuen gakoa izan zela ondorioztatuz. Hortaz, lanaren funtsa eta pisu gehiena aipaturiko espedizioak bereganatu du, konkista enpresa haren aurreko testuingurua eta gerraren egoera azalduko ditudalarik, noski. Azkenik, uhartean emandako gatazkek ekarri zituzten ondorioak, Peloponesoko gerren azken urteetan Grezian eman ziren gertaerekin erlazionatuko ditut, haiek gerra totalaren azken eginkizunetan eragina izan zutela ondorioztatuz.

Nire zeregina burutu ahal izateko lehen mailako iturri klasiko zein modernoez baliatu izan naiz. Klasikoen artean, Tuzididesen *Peloponesoko gerraren Historia* maisu-lana izan dut iturri nagusi gisa, izan ere gerran bertan parte harturiko atenastar militarra izan ez ezik, gerraren bilakaeraren nondik norakoak zabalduko zituen garaiko historiagilea ere izan zen. Obra amaitu gabe utzi zuenez, Xenofonteren *Helenikak* erabili izan dut gerraren azken pasarteak aztertu ahal izateko. Amaitzeko, Plutarkoren *Bizitza paraleloak* ere guztiz lagungarria suertatu zaizkit gatazkan zehar parte harturiko protagonista nagusien inguruan sakontzeko, zehazki, Nizias, Alzibiades eta Demostenes jeneralek emandako pausuak xehetasun handiagoarekin aztertzeko aukera eskuratu dudalarik. Iturri modernoan artean, nagusienak aipatzearen, Francisco Javier Gómez Espelosín, Adolfo Domínguez Monedero, Domingo Plácido, Francisco Javier Fernández Nieto edota Nic Fields azpimarratu nahiko nituzke, izan ere Antzinaroarenganako interesa duten autoreen lan apartak ere eskuragarri izateko zortea dugun heinean, nire lana bideratzen lagundu naute.

## **2. GERRAREN AURREKARIAK**

### **2.1. Atenas eta Espartaren hegemoniak**

K.a. V. mendeko 80. hamarkadaren amaieran pertsiarrak garaitu ostean, Atenasen mendea bezala ezagutzen den garaia hasten da. K.a. 479-431 bitartean pentekontezia deritzon 50 urte iraun zituen bake garaian zehar, Heladean bi hiri nagusituko ziren batik bat, Atenas eta Esparta.

Esparta, K.a. 481. urtetik aurrera pertsiarren aurka erasotzen zuen Liga heleniarraren buru bazen ere, barne konfliktoak zirela eta, Pausanias jeneralaren espedizio planak bertan behera gelditu ziren eta euren lurraldea defendatzera mugatu ziren (Plácido, 1989, 11). Beraz, Espartak gerrarako bere ahuleziak ezkutatu ezinean, Atenasen nagusigoa onartu beharko zuen Mediar Gerretan hauek aurkeztutako indar eta ausardiagatik (Plácido, 1989, 8-10)<sup>1</sup>.

Etorkizunean inbasio berri bat ekidin nahian, Greziako itsas potentzia gisa, Egeo itsasoa atenastar flotaren kontrolpean gelditu zen. Bestalde, defentsa programa eraginkorra jarri zuten martxan, hiria babesten zuten harresiak eraiki ez ezik, pertsiarren aurkako indarrak biltzearen, Zimon politikari eta jeneralak bultzatuta, Deloseko Liga eratu zen K.a. 477an, bere lidergoan hiri eta irla ezberdinek osaturiko aliantza sortuz. Liga,

---

<sup>1</sup> Gehiago sakontzeko: FIELDS, N., 2011, *Termópilas: la leyenda de los 300*, Bartzelona: Osprey.

atenastarren instrumentu politiko nahiz militarra bilakatu zen, izan ere Periklesek bultzaturiko politika inperialistan oinarritzen zen, hauen nagusitasuna eztabaidaezina izanik eta atenastarrak edozein ekintzen gidari bihurtuz (Gómez Espelosín, 2011, 116-117).

K.a. 461-445 bitartean Peloponesoko lehenengo gerra deritzona piztu zen (Domínguez Monedero, 1999, 151). Atenastarrek, politika erasokor eta espantsionista batekin, espedizio anitz burutu zituzten Egipton nahiz Peloponeson zehar, hiritarrez beteriko 60 bat galera itsasoratzen ziren urtero, zortzi hilabeteetan zehar nabigatuz<sup>2</sup>. Lurralde anitz konkistatu ostean inperioa handitzearekin batera bi potentzien arteko areriotasuna ere areagotuta, K.a. 446.ean hura baretuko zuen 30 urtetako bakea sinatu zuten<sup>3</sup>. Honen arabera, ez bata ez besteak ez zuen bestearen aurkako ekintza militarrik burutuko<sup>4</sup>.

Espartak aliatu anitz bildu eta Peloponesoko Liga eratu bazuen ere, atenastarren itsas hegemonia errekonozitua geldituz, Ligak, etsaien aurkako organismoa ez ezik, Tesalia, Beozia edota Atikako zonaldeetako lurren kontrola eskuratu zuen. Hortaz, haien ustetan,

*«consideraban además plenamente justificada la supremacía de Atenas ya que habían sido los atenienses los que habían contribuido con importantes y costosos sacrificios personales a la lucha con los persas en beneficio de la libertad de todos los griegos»* (Gómez Espelosín, 2011, 122-123).

## **2.2. Gerraren kausak**

Greziar historian zehar emandako guda garrantzitsuena pitzarazi zuten kausak anitzak badira ere, hiru izan ziren nagusienak. Batetik, K.a. 435eko Korinto eta Kortziraren arteko norgehiagoka<sup>5</sup>. Bi hirien arteko lehian kortzirarrak beren aliatu zirenak babestearren, korintiarren aurka egitean, lazedemoniarrek 30 urtetako bake ituna puskatu zutela kontsideratu zuten, bere mende zegoen hiria eraso baitzuten (Fernández Nieto, 1989, 8-10). Bigarrenik, tira biroko Potidea hirian areagoarazi zituzten istiluak; atenastarrek korintoarrek bertan zuten boterea deuseztatzearen esku hartu zuten hirian, baina potidiarren mesprexua jaso zuten. Atenastarren laguntzari muzin egin eta mazedoniarren alde azaldu ostean, bai atenastarrak bai espartarrak hura

---

<sup>2</sup> Plut., *Per.* 11.

<sup>3</sup> Tuc., 1.115.

<sup>4</sup> Tuc., 6.105.

<sup>5</sup> Tuc., 1.118.

bereganatzearren, K.a. 429.urtera arte iraungo zuen gatazka batean murgilduz (Fernández Nieto, 1989, 10). Azkenik, aurretik aliatu izandako Megara hirian, atenastarrek beren dekretua inposatu nahian, hiria isolatzearren Atikako portu zein merkataritza, politika nahiz gune soziala zen agora-ko sarrera galarazi zieten (Hornblower, 1985, 119). Hainbat azalpen egotzi izan zaizkio ekintza honi, gerra piztearren Periklesen probokazioa “*por espíritu de arrogancia y contradicción para que resaltase más su gran poder*”<sup>6</sup>, mendebaldeko merkataritza bideen kontrol nahia, etab. (Fernández Nieto, 1989, 11).

Nahiz eta faktore ezberdinen eragina argia izan, bi potentziek euren hegemonia inposatzeko zuten handinahi asmoak zeuden atzean. Plutarkok, Tuzidides berresten du kausa nagusia batik bat lazedemoniarrek atenastarren inperio asmoak mesfidantzaz ikusten zituztela argudiatzen duenean<sup>7</sup>.

Greziar mundua bi bandoetan banatuta zegoen eta bi potentzien arteko areriotasuna eta desberdintasuna ukaezina zen. Joniar nahiz Egeo itsasoko irlak eta Asia Txikiko hiriak Atenaseko gobernu demokratikoak bideratzen zuen Deloseko Ligaren babesean aurkitzen ziren bitartean, ia Peloponeso osoko eta Beozia eremuko hiriak Esparta oligarkikoaren esku zeuden, Peloponesoko Liga osatuz (Fernández Nieto, 1989, 11). Atenas itsasoz nagusi zen bitartean, lurrez zen Esparta, eta istiluak isiltzetik urrun, gerra atarian zegoen (Gómez Espelosín, 2011, 135).



Greziar munduaren banaketa K.a. 431an (www.historiaeuropa.wordpress.com, 2016ko maiatzaren 8a).

<sup>6</sup> Plut., *Per.* 31.

<sup>7</sup> Plut., *Per.* 17.



### 2.3. Gerra Arkidamiarra (K.a. 431-421)

Lehia lazedemoniarren aldekoa zen Tebas eta atenastarrena zen Platearen arteko liskarrarekin hasi zen (Fernández Nieto, 1989, 23). Periklesen agindupean, Peloponesoko hiriak oldartuz, Atenas abian zihoan... K.a. 430. urte inguruan Etiopian sortutako epidemia iritsi zen arte<sup>8</sup>. Hiriak kolpe gogorra jaso zuen garai honetan, bizirautea lortu zuten hiritar gutxiengoek, bertan zenduko zen Perikles agintariaren aurka egin eta desadostasuna nagusitu zen (Fernández Nieto, 1989, 24).

Aurrerantzean, atenastarrak Nizias eta Kleon politikari eta militarren agindupean, gatazkak eta errebolta bidertu ziren (Fernández Nieto, 1989, 27). Kortziran piztutako gerra zibilaren testuinguruan bi hegemoniek burututako ekintza bortitzek Tuzidides hausnarketa sakonak egitera bultzatu zuten, Greziako oinarri moral zein erlijiosoak kolokan jarriaz:

*«Izugarrikeria handiak egin ziren hirietan gerrate zibilean, giza izaera berdina den artean beti gertatzen eta gertatuko diren izugarrikeriak ... gerrak eguneroko ongizatea kentzen duenean, bortizkeriaren maisu bilakatzen da eta zirkunstantzietara moldatzen ditu gehienen sentimenduak ... Horren guztiaren eragilea boterea da, berarekin daraman aberastasun eta ohore goseagatik ... Horrelaxe gertatu ziren edozertariko gaiztakeriak Heleniar munduan gerra zibilen erruz»<sup>9</sup>.*

Gerrak aurrera egin heinean, atenastarrek Mediterraneo mendebalderantz zuzendu zituzten beren asmoak, Magna Greziaren gune estrategikoaren garrantziaz jabeturik. K.a. 427.urtean, ekintza militar nahiz diplomatikoak martxan jarri zituzten besteak beste Leontinos eta Regio aliatuekin. Sirakusa, Mesena edota Selinunte espartarrenak ziren hiriekin mantentzen zuten norgehiagokan laguntzarren (Fernández Nieto, 1989, 31), Ekklesiak Eurimedonte eta Sofokles estrategoan agindupean espedizio bat bidaltzea erabaki zuen. Demostenesek, bestalde, Peloponeson zehar operazio militarrek gauzatzeko tropak izango zituen<sup>10</sup>.

K.a. 426.urtean Greziako ipar-mendebaldean atenastarrek hainbat bataila irabazi bazituzten ere, hurrengo urteko udaberrian lazedemoniarrek Atika inbaditu zuten Kortziran lehorreratu<sup>11</sup>. Bertan, Demostenesen tropek atenastarrenekin elkartu ziren,

---

<sup>8</sup> Tuc., 2.48.

<sup>9</sup> Tuc., 3.82-83.

<sup>10</sup> Tuc., 4.2.

<sup>11</sup> *Ibid.*

eta “*la presencia de aquellos soldados en Pilos creó, al ser conocida por los espartanos, una auténtica conmoción*” (Fernández Nieto, 1989, 33). Arriskua ikusirik, espartarrek Atikatik tropak erretiratu eta, atsekabetuta, Demostenesekin armistizioa sinatu bazuten ere ez zituzten etsaien baldintza oro onartu, eta bake ituna bertan behera gelditu zen<sup>12</sup>.

Ondorengo urteetan, kanpaina anitzetan saiakerak egin bazituzten ere, atenastarrek ez zuten zorte handirik izan. Siziliako espedizioan zehar, hainbat misio militar gauzatu ez ezik, politika lanetan ere jardun ziren itun eta aliantza berriak eginez (Fernández Nieto, 1989, 31), eta horrela, Esparta nahiz Korintoren influentzia gutxitzea lortu zuten. Sirakusarren hedapenaren aurrean, siziliarren babesle bilakatu ziren Hermokrates jeneralak K.a. 424an irlako hirien artean sinatutako armistizioa arte<sup>13</sup>. Hura onartu eta adostu bezala Sizilia abandonatu zuten<sup>14</sup>.

Heladean ere hainbat porrot jasan behar izan zituzten, ezbairik gabe, gogorrena Anfipolis hirian pairatutakoa izanik (Fernández Nieto, 1989, 38). Brasidas, lazedemoniarren jeneralak, K.a. 423an Trazian ofentsiba bat prestatu ostean, hurrengo urtean Kleonek hura defendatu ostean, tropak Anfipoliserantz bideratu zituen<sup>15</sup>. Lazedemoniarren garaipenarekin, gatazkan zehar estratego bezala jardun ostean, Tuzidides 20 urtez erbestera<sup>16</sup> izan zen eta bai Kleonek, bai Brasidas jeneralak ere bizia galdu zuten<sup>17</sup>.

#### **2.4. Niziasen bake ituna (K.a. 421)**

Gatazkaren ostean, bi potentziak ahul egonik, Nizias jeneralak eta Plistoanaktek, lazedemoniarren erregeak bi bandoetako biztanleak aseko zituzten ituna idatzi eta K.a. 421ean bakea ezarri zen<sup>18</sup>. Nahiz eta hainbat hiriek tratatua ez onartu<sup>19</sup>, “*Atenastarren eta beren aliatuen eta lazedemoniarren eta berenen arteko bake ituna berrogeita hamar urtez izango da indarrean dolurik ez kalterik gabe, hala lehorrean nola*

---

<sup>12</sup> Tuc., 4.21.

<sup>13</sup> Tuc., 4.58.

<sup>14</sup> Tuc., 4.65.

<sup>15</sup> Tuc., 5.6.

<sup>16</sup> Tuc., 5.26.

<sup>17</sup> Tuc., 5.10.

<sup>18</sup> Tuc., 5.17.

<sup>19</sup> Gehiago sakontzeko: ALONSO TRONCOSO, V., 1987, *Neutralidad y neutralismo en la Guerra del Peloponeso (431-404 a.C.)*, Madril: Universidad Autónoma de Madrid.

*itsasoan*<sup>20</sup>. Konkistaturiko hiriak gerra hasi aurreko Ligara itzuliak izango ziren, eta bestalde, presoak ere etxeratuak izango ziren. Utopia bailitzan, bi hiriek elkarri laguntza eskainiko zioten behar izanez gero<sup>21</sup>, baina bake hura behin-behinekoa zelako susmoa nagusi zen (Fernández Nieto, 1989, 41).

Hegemonia bakoitzak, azkenerako haserrea piztuko zuten pakto desberdinak burutu zituen. Atenastarrek, beoziarrekin tregua sinatu bazuten ere, baztertu egin zituzten korintoarrak (Fernández Nieto, 1989, 42) eta, ondorioz, hauek Argosekin federazio bat eratu zuten, Mantinea, Elide eta Kaltzidikako beste hiri batzuekin batera<sup>22</sup>. Espartarrek federazio horretan esku hartu nahi izateak, atenastarren politika antilazedemoniarra areagotu zuen (Fernández Nieto, 1989, 43) eta hortaz, geroz eta gehiago ziren bakea apurtzearen aldekoak, horien artean K.a. 420an estratego izendatua izandako Alzibiades jenerala<sup>23</sup>.

## **2.5. Gatazken susperraldia: Mantineako bataila (K.a. 418)**

K.a. 418an lazedemoniarrek inizatiba hartu nahian, Argosen aurka egin eta armistizioa sinarazi zioten<sup>24</sup>. Orduan, “Aliantza Laukoitzak” Arkadia eraso eta Mantineako batailan, Espartak garaipen garbia lortu zuen<sup>25</sup>, Tuzididesen esanetan, “*heleniarren artean aspaldi eta hiri garrantzitsuenek parte hartuta egin zen borrokarik garrantzitsuena*” delakoan<sup>26</sup>. Hurrengo urtean aldiz, gatazkak berpiztu, eta Argos Atenasekin berrelkartu zen<sup>27</sup>.

K.a. 416eko udaran, atenastarrak Melos irlara espedizio bat antolatu zuten bertakoen neutraltasuna atenastarrenaganako aliantzagatik aldatzeko<sup>28</sup>. Meliar eta atenastar enbaxadoreen arteko diskurtsoa helarazten digu Tuzididesek<sup>29</sup>. Adostasunik lortu ezinean, neurri krudelak hartuz, hiria setiatu zuten<sup>30</sup>.

---

<sup>20</sup> Tuc., 5.18.

<sup>21</sup> Tuc., 5.18-23.

<sup>22</sup> Tuc., 5.27-31.

<sup>23</sup> Tuc., 5.43.

<sup>24</sup> Tuc., 5.57-60.

<sup>25</sup> Tuc., 5.61-64.

<sup>26</sup> Tuc., 5.74.

<sup>27</sup> Tuc., 5.82.

<sup>28</sup> Tuc., 5.84.

<sup>29</sup> Gehiago sakontzeko: ALONSO TRONCOSO, *op.cit.*

<sup>30</sup> Tuc., 5.114-116.

### 3. SIZILIAKO ESPEDIZIOA (K.a. 415-413)

#### 3.1. Atenastarrak eta sirakusarrak

K.a. 416an Siziliako panorama belikoa berriz ere pizturik, atenastarren aliatu zen Egestak Selinunte eta Sirakusa hirien erasoak pairatzean, aliatuei laguntza eskatu zien. Hauek hainbat ordezkari bidali zituzten Siziliara haiek laguntzaren truke promesten zizkieten zilarrezko 60 talentu bazituztela konprobatzearen. Frogatu ostean, nahiz eta jende asko espedizioaren proiektuaren alde ez egon, enpresa onartu eta Alzibiades, Nizias eta Lamako estrategoak buru izango ziren espedizioa martxan jarri zen<sup>31</sup>.

Hiru buruzagien planak asko aldentzen ziren bata bestearengandik, laguntza eskaintza sinplearen atzean batzuek konkista asmoak baitzituzten. Tuzididesek argitara ematen duen moduan, Niziasek, ez zuen argi ikusten kanpainaren izaera hura. Indar militarrek galtzeko beldur zen hor nonbait, gizon prestu eta zuhurra zen heinean, garaipenik lortu ezean lazedemoniarren aurrean erabat ahul geldituko zirela pentsatzen zuen<sup>32</sup>. Batzarrean diskurtso bat eman ostean, Alzibiadesen txanda zen. Ez zituen bere handinahi asmoak ezkutatu, eta irla bereganatzeaz gain, Kartago eta Libia eskuratu eta hauen elkarketaren ostean, Italia eta Peloponeso bereganatu nahi zituen<sup>33</sup>. Konkista hark onura anitz ekarriko omen zituen, bere ustetan, *“lurralde haiek eskuratuz gero, badaiteke gure inperioa Helade osora zabaltzea, edo behintzat sirakusarrei min egitea, hortik bai guk eta bai gure aliatuek onura izango dugularik”*<sup>34</sup>.

Bere hitzak entzun ostean, atenastarren artean gerrarako grinak piztu ziren. Batzarrean, distantzia luzea eta elkar komunikatzeko zailtasunak zirela eta, hiru estrategoek botere ahalguztiduna izango zutela erabaki zen, beti ere beren eginkizunen erantzule zuzenak izango zirelarik, eta, ondoren, batzarrean epaituak izan zitezkeelarik<sup>35</sup>.

Honela, armada prestatzeari ekin, eta guztira 134 trirreme, eta Rodaseko bi pentekontoroi, 50 arraunlaridun trirremeen (Fields, 2009, 51), indarrak batu zituzten<sup>36</sup>. Atenastarrenak 100 ziren, gainontzekoak aliatuenak izanik (Fields, 2009, 49). Halaber, beste hainbat ontzi eta tropa gehitu zitzaizkien, besteak beste, hippagogos itsasontzia, “hipomobila”, 30 zaldun garraiatzeaz arduratuko zena (Fields, 2009, 51), eta oinarrizko

---

<sup>31</sup> Tuc., 6.8.

<sup>32</sup> Plut., *Nic.* 14.1.

<sup>33</sup> Plut., *Alc.* 17.3.

<sup>34</sup> Tuc., 6.18.

<sup>35</sup> Tuc., 6.24-25.

<sup>36</sup> Tuc., 6.43.

hornidura garraiatzeaz arduratuko ziren beste 30 itsasontzi, okinak, harginak, arotzak eta gotorlekuak eraikitze materialak bertan zihoazelarik<sup>37</sup>.

Tropak 5.100 hoplitez osatuak zeuden. Horietatik 1.500 atenastarrak ziren, eta gainontzekoak soldadu aliatuak<sup>38</sup>. Hauen artean 700 thetes zeuden, Solon legegileak ezarritako gizarte zentsuaren arabera, 200 medimno baino gutxiago irabazten zuten mailarik baxueneko hiritarrak (Gómez Espelosín, 2011, 74).

Bitarte honetan, Sirakusan atenastarren inbasio asmoen berri izatean, ekklesian hainbat hizlariak hitz egin zuten, besteak beste Hermokrates militarrek. Honek atenastarren etorrera igarri ez ezik, aliantzak eginez, haiei aurre egitera animatu zituen:

*«benetan nahi dutena, esan gabe utzi arren, Sizilia bereganatzea da, eta batez ere gure hiria, zeren, geure hau hartuz gero, gainerakoa berenganatzea erraza dela uste baitute. ... Itxaropen osoarekin, beraz, saia gaitezen hemengoa prestatzen, baina bidal ditzagun mandatariak sikuloengana, batzuen ituna berresteko eta bestetzuen adiskidetasuna eta aliantza sustatzeko»<sup>39</sup>.*

Era guztietako iritziak zabaldu ziren. Batzuk atenastarren arriskuaz larriturik zeuden bitartean, beste batzuek, barre kontutzat hartzen zuten berri hura<sup>40</sup>.

### 3.2. Kanpainaren hastapenak

K.a. 415. urteko udara aldera atenastarrak martxan jarri ziren Siziliarantz. Garai horretan bertan, Atenasen Hermes jainkoaren omenezko estatua batzuen aurka egindako ekintzen eskandalua zabaldu zen (Domínguez Monedero, 1999, 288); haiek burua moztuta agertu ziren<sup>41</sup>. Alzibiades akusazio horietan murgilduta egon ez ezik, Eleusiseko misterioetako errituak profanatzeaz akusatua izan zen. Izan ere, edanda zegoela, errituari burla egin omen zion beste kide batzuekin batera<sup>42</sup>. Dena den espedizioarekin abiatu zitekeela akordatuta, ibilbideko lehenengo geldiunea Kortziran egin zuten. Joniar golkotik zehar nabigatuz, Italia kostako hiriek ostatu eman ez bazieten ere, Region lehorreratu, eta negoziatu ostean, hiriaren periferian kanpamendua

---

<sup>37</sup> Tuc., 6.44.

<sup>38</sup> Tuc., 6.43.

<sup>39</sup> Tuc., 6.33-34.

<sup>40</sup> Tuc., 6.35.

<sup>41</sup> Tuc., 6.28.

<sup>42</sup> Plut., Alc. 19.2.

finkatzea lortu zuten. Ordurako, jada sirakusarrak etsaiak Italia aldean zeudela jabetuta, hiria babestu eta armada indartzeari ekin zioten<sup>43</sup>.

Behin Egestara iritsita, akordatutako diru kopurua ez zela existitzen jakin izan zuten. Estrategoek zein pauso eman eztabaidatzeko bildu, eta Nizias izan ezik, beste biek erasorako jarrera aurkeztu zuten. Altzibiadesen plana nagusitu zen: Katania operazio gune gisa finkatu eta Sirakusa ezustean harrapatuko zuten<sup>44</sup>. Hara iristean, *Salamina* itsasontzia Altzibiadesen bila etorri zen epaitua izatearren<sup>45</sup>. Atenaserantz abiatu bazen

ere, *“Turiosera iristerakoan, ontzia bertan utzi eta alde egin zuten, bidegabeko salaketaren kariaz paratutako epaiketa batera aurkezteko beldurrez”*<sup>46</sup>. Erbesteratu bihurtuz, Peloponeson lehorreratu zen<sup>47</sup>.

Gauzak honela, atenastar armada ezarritako estrategiarekin bat ez zetozen buruzagien agindupean zegoen.



Atenastarren ibilbidea siziliarantz

([www.commons.wikimedia.org](http://www.commons.wikimedia.org), mapa moldatua, 2016ko maiatzaren 8a).

### 3.3. Sirakusako setioa

K.a. 415eko neguan sarturik, sirakusarren aurkako erasoak prestatzeari ekin zioten. Haiek ezustean harrapatzea ezinezkoa zen jada, eta hortaz, atenastarrek etsaia hiritik ahalik eta gehien aldentzea nahi zuten. Niziasek bere estrategia burutu ahal izateko, Sirakusara Kataniako konfiantzazko gizona bidali zuen, traidore mozorroz jantzirik, eta sirakusarrak Kataniarantz aurrez pentsatuta zuten eguna baino lehen joaten baziren, bertakoen laguntza jasoaz, atenastarrak erraz garaituko zituztela sinetsarazi zien<sup>48</sup>. Hura izan zen Niziasek Sizilian buruturiko estrategiarik trebeena<sup>49</sup>. Sirakusarrak irtenda, atenastarrak bertaratu eta Anapo ibaiko zubia suntsitu ostean, kostatik gertu zegoen

<sup>43</sup> Tuc., 6.42-45.

<sup>44</sup> Tuc., 6.46-50.

<sup>45</sup> Tuc., 6.53.

<sup>46</sup> Tuc., 6.61.

<sup>47</sup> *Ibid.*

<sup>48</sup> Tuc., 6.63-64.

<sup>49</sup> Plut., *Nic.* 16.3.

padura eta amildegien eremu bitarte batean kokatu ziren oholesi bat eta gotorleku bat eraikiz<sup>50</sup>. Armada sirakusarra ailegatzean, atenastarren blokeoarekin topatu eta egunsentian, greziarrek sirakusarren esperientzia eza aprobetxatuz, garaipen garbia lortu zuten<sup>51</sup>.

Batailaren ostean, tregua adostu eta atenastarrak, Greziatik errefortzuak etorri bitartean, Katania eta Naxos hirietan finkatuta igaro zuten negua<sup>52</sup>. Sirakusarrek ere indartzeari ekin zioten ausardi eta kemenaz beteriko hiru estratego izendatuz, Hermokrates, Heraklides eta Sikano eta, gainera, Heladeko hiri aliatuei laguntza eskatu zieten<sup>53</sup>. Une erabakigarri hura erabili zuen Alzibiadesek erbesteratu eta baztertu zuen hiria traizionatzeko. Izan ere lazedemoniarren bizimodura ezin hobeto egokitu zen haien konfiantza irabaziaz<sup>54</sup>. Peloponeson eman behar zituzten pausuak gomendatu ez ezik, Sirakusara laguntza ematera joateko konbentzitu zituen:

*«Sirakusa hartzen badute, Sizilia osoa okupatuko dute, eta jarraian Italia. Orduan hango arriskua, lehenago azaldu dudanez, laster izango duzue gainean zuek ere. Beraz, inork ez dezala pentsa erabakiaren xede bakarra Sizilia denik, baizik Peloponeso dela jokoan dagoena, hurrengo neurriok ahalik arinen hartzen ez badituzue: Itsasora itzazue bidaiari zehar arraunlari eta hara iritsitakoan hoplita izango diren tropak, eta, ... bidal ezazue buruzagi espartar bat, aurkeztu direnak antola ditzan eta aurkeztu nahi ez dutenak behartu»<sup>55</sup>.*

Hurrengo urteko udaberriaren amaierarako, Atenasetik etorritako tropa laguntzaileekin batera, irlan bertan aliatu berrien indarrak batu zituzten greziarrek<sup>56</sup>. Sirakusa konkistatu nahi bazuten, ezinbestean lehenik Epipoletako zonaldea, hiriko punturik gorenean kokatutako lautada malkartsua<sup>57</sup>, kontrolatu beharko zutelako pentsatu zuten sirakusarrek, eta hori dela eta, “*gune hartarako sarbideak zaintzea erabaki zuten, etsaia eurak konturatu gabe hara igo ez zedin. Beste inondik ere ezingo ziren jaitsi, zeren hiri inguruko eremu osoa pendizean baitago, eta hiritik begien bistan bete-betean*”<sup>58</sup>.

---

<sup>50</sup> Tuc., 6.65-66.

<sup>51</sup> Tuc., 6.68-70.

<sup>52</sup> Tuc., 6.71-72.

<sup>53</sup> Tuc., 6.73.

<sup>54</sup> Plut., Alc. 23.4.

<sup>55</sup> Tuc., 6.91.

<sup>56</sup> Tuc., 6.94.

<sup>57</sup> Tuc., 6.91.

<sup>58</sup> Tuc., 6.96.

Honela, 600 bat hoplita Epipolak zelatatzeaz arduratu ziren. Atenastarren tropak, hiritik ipar-ekialderago zegoen Leonte hirian ezarri ziren, eta flota aldiz, Tapson. Sirakusarren nahasmena aprobetxatuz, Epipolak bereganatzeari ekin zioten Eurialo bidea jarraituz. Soldadu sirakusarren erdia bertan zendu zen, azkenerako atenastarrak nagusituz. Bestalde, flota babestearren, Tapso istmoaren punta batetik bestera zihoan zonaldean oholesi bat eraikitzeari ekin zioten<sup>59</sup>.

Eremua babestearren, bi gotorleku eraiki zituzten, bata iparraldeko Labdalo zonaldean, Megara Hiblearanzko norabidean; bestea, Sika gunean, Epipolen hegoaldeko zonaldeetik gertu. Ekialdea babesten zuen defentsa izanik, ziurrenik erreferentzia puntu ezaguna zen jada (Fields, 2009, 57). Tuzididesek ἐτείχισαν τὸν κύκλον, gotorleku zirkular izena egotzen dio honi, setioa burutu bitartean atenastarren operazio gune nagusia zelarik. Bi armadak aurrez aurre aurkitzean, Sirakusako buruzagiak euren ahuleziaz jabeturik, atzera egin zuten<sup>60</sup>.

Bando bakoitzak bestearen gotorlekuak eraso bitartean, atenastarrek estrategia berria planteatu zuten. Helburua, sirakusarrak beren baitan “giltzaperatuta” gelditzea zen eta horretarako, Sikako gotorlekutik iparralderantz zihoan oholesia eraikitzeari ekin zioten, Trogiloranzko norabidean, Portu Handirantz distantzia gutxien zegoen zonaldean. Sirakusarrek, defentsa moduan, atenastarren harresiarekiko zeharkako oholesi bat eraiki zuten orduan. Baina defentsa lanak, bertan behera gelditu ziren 300 zaldun atenastarren erruz<sup>61</sup>.

Hurrengo egunean, gotorleku zirkularretik hasita, atenastarrek bigarren harresi bat eraiki zuten Epipolen hegoalderantz aldapa behera zihoan eremu baten eta Portu Handiaren lautadaren bitartean. Sirakusarrek bigarren oholesi bat eraiki bazuten ere, atenastarrak laster egin ziren harekin eta sirakusarrak ihesean, gotorleku zirkularrerantz joan ziren. Orduan,

*«hirurehun atenastarren talde hautatuak zubirantz jo zuen azkar, haiei  
ihesbidea moztera, baina sirakusarrak, maniobra horren beldur,  
hirurehunentz aurka oldartu ziren denak batera, ihesean jarri zituzten eta*

---

<sup>59</sup> Tuc., 6.96-97.

<sup>60</sup> Tuc., 6.97-98.

<sup>61</sup> Tuc., 6.99-100.




*atenastarren eskuin hegalarren kontra jo zuten. Ustekabeko eraso hark hegaleko lehen eskoadroian izua eragin zuen»<sup>62</sup>.*

Lamako jeneralak bizia galdu zuen bertan borrokatuz<sup>63</sup>. Sirakusarrak nagusi sentituz, atenastarren gotorleku zirkularra bereganatzeko asmoz zati bat kontrolatzea lortu bazuten ere, Niziasek haien konkista planak garaiz geldiarazi zituen. Sirakusa blokeatzearen, Epipoletatik Plemirio muturreraino iristen zen eremuan harresi bikoitza eraiki zuten. Hau Sirakusako hegoaldean kokatutako tontorra zen, eta harresia Portu Handiraino luzatu zuten<sup>64</sup>.

Bestalde, Gilipok, Korintoko jeneralak, bideratzen zituen tropak gertu bazeuden ere, Niziasek, ez zien jaramonik egin, inolako neurririk hartu barik<sup>65</sup>. Gilipo iristean, Epipoletara heldu eta Eurielo hiritik igaroz, atenastarrek beren harresi bikoitza oraindik bukatzeaz zutenez, pasabidea aprobeztatu eta hirian sartu ziren<sup>66</sup>. Etorri-berriak bake ituna proposatu bazieten ere, hauek muzin egin zioten. Atenastarren estrategia oztopatzearen, berriro ere oholesi bat eraiki zuten sirakusarrek, Epipolen iparraldeko

amildegitik paraleloki. Egoeraren arriskuaz jabeturik, Niziasen aginduz Plemirioko zonaldea sendotzeari ekin zioten, izan ere hornidurak errazago ailegatuko ziren. Itsasaldera gerturatu zituen tropak eta hiru gotorleku eraiki zituen inguru hartan. Gilipok eraso ahaleginak egin bazituen ere, bi harresien arteko espazio mugatua zela eta, zailtasunak izan zituzten eraso eraginkorra eman ahal izateko<sup>67</sup>.



Sirakusako setioa (Monedero, 1999, 292.orriko maparen moldaketa).

<sup>62</sup> Tuc., 6.101.

<sup>63</sup> Plut., Nic. 28.3.

<sup>64</sup> Tuc., 7.4.

<sup>65</sup> Tuc., 6.104.

<sup>66</sup> Tuc., 7.2.

<sup>67</sup> Tuc., 7.3-5.

Jeneralak bere errua onartu eta estrategia aldatu zuen. Oraingoan, ezkerretik atenastarren harresia atzean utziz, gotorleku zirkularrean sartu ziren kanpainaren une erabakigarria zelarik izan ere, “atenastarrek ezingo zieten aurrerantzean bidea trahatu, eta azken hauek ezingo zuten jada beren murruekin hiria setiatu, nahiz eta bataila irabazi”<sup>68</sup>.

Egoera desatsegin hartan, benetan zaila egiten zitzaion Niziasen erabaki eraginkorren bat hartzea. Udararen amaiera aldera, Tuzididesek bere osotasunean aurkeztu duen gutun bat idatzi zion Atenaseko gobernuari, neguan iritsiko zena. Bertan tropen erretira egiteko baimena eskatzen zuen eta hori ezinezkoa izanez gero, behintzat tropa gehiagoren etorrera galarazi nahi zuen. Atenastarrek lehenik lurrez eta ondoren itsasoz izan zituzten tira-biren laburpena egin ostean, soldadu atenastarren ahuleziaz jakitun egin zituen, izan ere zaldun, esklabo zein marinelen etengabeko desertzioak zirela eta, armada atenastarra ahultzen joan zen<sup>69</sup>. Argudioon bitartez azaldu zituen Niziasen bere etsipenaren arrazoiak. Fields-en iritziz, baliteke baieztapen hau atenastarren demokrazia sistemarengan egindako kritikarik zuzenean izatea, gerra garaian behintzat (Fields, 2009, 66):

*«Zuek, idazki honen hartzaileok, ondo baino hobeto dakizue zein gutxi irauten duen tripulazio baten egoera eraginkorrak, eta zein gutxi izaten diren hasierako boga eritmoari eusten dioten arraunlariak. ... Baina niretzat larriena zera da: ezin diodala egoera horri bueltarik eman, izan ere zaila baita atenastarren izaera kontrolatzea, eta ez daukagula tripulazio berria nondik erreklutatu; ... Horrez gain, badakidenez zelakoak zareten, lehenbizi berri atseginak entzun gura, eta gero, emaitzak esandakoarekin bat ez badatoz, errudunen bila hasten zaretela, seguruago iritzi diot egia azaltzeari»<sup>70</sup>.*

### 3.4. Bigarren espedizioa

Ekklesian erabakia, garbia izan zen: jarrera ezkorreko agintaria ordezkatu beharrean, bigarren espedizio bat jarriko zuten martxan. Heladean, Espartarekin gerra berpiztear egonik, mugimendu benetan ausarta edota eroa izan zela esan daiteke (Fields, 2009, 66). Bigarren espedizio hura bideratuko zituzten bi estratego berri izendatu zituzten, Eurimedonte eta Piloseko heroia, Demostenes. Espartako agintariek ere laguntza bidali zuten Siziliarantz. Besteak beste, Ekrito jeneralak lidergoa hartuz, 600 hoplita eta

---

<sup>68</sup> Tuc., 7.6.

<sup>69</sup> Tuc., 7.12-13.

<sup>70</sup> Tuc., 7.14.

hainbat neodamodeis, askatasunaz eta eskubide mugatuez gozaten zuten ilotak, eta 300 hoplita beoziar bidali zituen<sup>71</sup>.

Jada K.a. 413an sarturik, Giliporen strategiaren lehen pausua, Plemirioko gotorlekuak bereganatzea zen, eta borroka piztu aurreko gauean, sekretupean, inguru hartan armada bildu zuen. Hermokrates jeneralak, bestalde, trirremeak itsasaldera bideratu zituen itsas borroka probokatzearren. 80 bat trirreme sirakusarrek 60 atenastar ontzien aurka egin zuten, eta nahiz eta hasieran bertakoak nagusitu, azkenerako atenastarrak gailendu ziren<sup>72</sup>. Gatazkan zehar, Atenaseko armada itsasertzeraino jaistean, Gilipok bere indarrak aurreratu, eta gotorlekuak konkistatu zituen. Sirakusarrak, Portu Handiko batailan inposatzen ari bazen ere, ordenarik gabeko erasoekin, azkenerako atenastarren esku erori ziren. Dena den, Plemirioko kontrola sirakusarren esku zegoen, gotorlekuak eskuratu ostean, bat suntsitu eta beste biak euren erabilerarako erreparatu. Galera honek gogor kolpatu zituen atenastarrak, izan ere euren hornidurarako guztiz garrantzitsuak ziren gotorleku haiek, eta Tuzididesek dioenez, *“aurrerantzean ez zen izango segurua hornikuntzak garraiatzea, ... orduan ezingo zen lortu hornikuntza batailarik gabe; horrek guztiak tropen animoak beheratu zituen”*<sup>73</sup>.

Nizias, etsipenak jota, azken saiakera batean, Portu Handian sirakusarrak itsasoz garaitzen saiatu bazen ere, ez zuen deus ere lortu, sirakusarrek muzin egin baitzioten itsasoz borrokatzeari, eta euren trirremeak, Tuzididesek deritzon *παλαιῶν νεωσοίκων*, armategi zaharraren aurrealdean mantendu zituzten. Portuko badiaren ipar-ekialdean kokatuta zeuden, itsas azpian finkatutako hesola batzuek babesten zituztelarik (Fields, 2009, 69). Atenastarrek oztopo hura gainditzearren, merkantzia-ontzi bat prestatu zuten egurrezko dorreekin, alboetan parapetoak ipiniz. Sirakusarren hesolak suntsitzeari ekin bazioten ere, esfortzu oro alferrik izan zen, atenastarrak erretiratu heinean, hesola berriak ezarriak izan baitziren<sup>74</sup>. Plemirio ingurua bereganatu ostean, sirakusarrek Kamarina bezalako hiri bizilagunen laguntza jaso zuten, izan ere irlako hiri gehienak, sirakusarren alde azaldu ziren<sup>75</sup>.

Gilipok Niziasen tropak Demostenes etorri baino lehen garaitu nahi zituen. Beren flota indartzearren, trirreme sirakusarrak Portu Handiko espazio mugatuan borroka zitezen

---

<sup>71</sup> Tuc., 5.34.

<sup>72</sup> Tuc., 7.22.

<sup>73</sup> Tuc., 7.24.

<sup>74</sup> Tuc., 7.25.

<sup>75</sup> Tuc., 7.32-33.

birmoldatuak izan ziren: “*ontzian sendotasuna areagotu zuten, brankak laburtuz eta horiei dibidieta lodiak ezarriz, branken eta amulen artean sei ukondo inguruko eskorak ipinita barrutik nahiz kanpotik*”<sup>76</sup>. Atenastarren itsasontziak aurrealdea estuagoa izanik, ez ziren trebeak eraso mota horretarako. Indargarri berri horrekin, itsasontzien aurrez aurreko erasoetan abantaila lortuta, portuko espazio murrizak ere beren alde jokatzen zuen, izan ere atenastarrek ezin zuten diekplous edota periplous zeritzoten beren taktika gogokoenak burutu<sup>77</sup>. Lehenengoan, ontziak batailarako formazioan lerro zuzenean kokatuta, etsaien arteko irekidura batera gerturatu, eta handik igaroz, berriro buelta emanda, etsaiaren barkua popatik erasotzen zuen; bigarrengoan aldiz, behin etsaien irekidura lortuta, itsasontzia gertu izanik, haren albo batetik erasotzen zuen (Fields, 2009, 42).

Erasoa bikoitza izango zen, bai lurrez bai itsasoz. Lurrezko armada, Olinpieio hiritik abiatu zen atenastarren harresia suntsitzearren eta, bitartean, itsasoz 80 bat trirremek atenastarren 75 ontziak suntsitzeari ekingo zioten. Sirakusarren taktika berria eraginkorra suertatu, eta lehen aldiz sirakusarrek itsasoz garaitu zituzten<sup>78</sup>.

Hondamena jada ukazina zirudienean, Demostenes eta 73 trirreme eta 5.000 hoplitek osaturiko armada, festa giroan lehorreratu ziren. Gainera, “*iba preparado teatralmente para aterrorizar a los enemigos con el adorno de armas, las insignias de las trirremes y la multitud de cómitres y de flautistas*”<sup>79</sup>. Berezkoa zuen ausardiarekin, Demostenesek Epipolak bereganatzearren, sirakusarren zeharkako oholesia suntsitzea agindu zuen. Egunez oharkabeko eraso bat egitea ezinezkoa izango zenez, bost egunetarako elikagaiak eta beharrezko material oro biltzeko aginduz, gaualderra martxan jarri zituen tropak. Iristean, Nizias bertako gotorlekuan gelditu zen hainbat soldaduekin batera. Eurielo inguruko zonaldera gerturatzean, sirakusarren erasoak jasanaz, aurre egitea lortu zuten<sup>80</sup>.

Gilipok, gaualderra bere tropak mobilizatu eta kontraerasoa antolatuta, atenastarrak, hor nonbait gauaren iluntasunean nahasturik, sakabanatu egin ziren. Aliatuak etsaiengandik desberdindu ezinik, askok euren artean borrokatzeari ekin zioten<sup>81</sup>. Izan ere, bi

---

<sup>76</sup> Tuc., 7.36.

<sup>77</sup> Tuc., 7.36.

<sup>78</sup> Tuc., 7.37-41.

<sup>79</sup> Plut., *Nic.* 21.1.

<sup>80</sup> Tuc., 7.43.

<sup>81</sup> Tuc., 7.44.

tropetako hoplitek ekipamendu pertsonala zeramatenez, armarrietan ikur pertsonalak agertzen ziren, ikusmen hutsaz haiek desberdintzeko zailtasun handiak zituztelarik. Izan ere, armarrietako ikur estatalak ezarri berriak baziren ere, ez ziren hurrengo mendera arte zabalduko (Fields, 2009, 71). Nahasmena hain zen handia, non “*atenastarrak, alde batean eta bestean zer gertatzen zen zehazki jakiterik ez zeukatenez, nahasmen eta desordena larrian aurkitu ziren orduan ... lagun baten figura ikusten zuten aurrean, baina burkidea zen ala ez ziur jakin gabe*”<sup>82</sup>. Baina Tuzididesen ustez, soldaduak gehien nahasarazi zituenak, tropa biek doinu berberarekin oihukatzen zuten paean guda oihua zen. Garaipenak lortu ahala, pean kantu bat abestea ohitura bilakatu zen, eta bi bandoetan jatorri doriar, argibo nahiz kortziriar soldaduak egotean, abesti berdintsuak abesten zituzten, hauek guztiak desberdintzea ezinezkoa zelarik (Kagan, 2009, 180). Sirakusarrak trebeago jardun zirenez, hondamen horrek gogorrako kolpatu zituen atenastarrak<sup>83</sup>.

Egoera tamalgarri eta zail hartan, estrategoak bildu ziren hurrengo pausua zein izango zen erabakitzearen. Izan ere, Sirakusa bereganatzeko asmoak bertan behera utzi ez ezik, Siziliako konkistaren enpresa ere jada ez zuten garbi ikusten eta ondorioz, helburu nagusia biziraupen hutsera murriztu zen. Demostenes eta Eurimedonte bizirik zeuden soldaduak oraindik tinko mantentzen ziren ontzi gutxi batzuetan etxera itzuli behar zirelako iritzikoak baziren ere, Niziasek ez zuen bere desadostasuna ezkutatu. Ekklesiaren baimenik gabe ezin ziren erretiratu, bestenaz, euren aurkari politikoek iritzi publikoa erabiliko zuten haien kalterako. Egia da estrategoek botere ahalguztiduna zutela euren espedizioaren ekintzetan, baina ez dirudi Nizias guztiz erratuta zegoenik atenastarren izaera aldakorra ezagututa, ez lukete erreparorik izango edozein ezbehar edota huts egiteren errua haiei leporatzerako orduan.

Azkenerako bertan gelditu baziren ere, etsaien tropa gehiago iristen zirela ikustean, egoera ez zela hobetuko sumatuz, Nizias atsekabetuta, amore emateko zorian zegoen, baina gertakizunak ez ziren horrela eman. K.a. 413ko Abuztuaren 27an datatzen den ilargi eklipse batek erretiratzeko espedizioaren itsasoratzea atzerarazi zuen, izan ere, “*se interpretaba como un fenómeno prodigioso y un signo enviado por la divinidad, precursor de grandes desgracias*”<sup>84</sup>, eta hortaz,

---

<sup>82</sup> Tuc., 7.44.

<sup>83</sup> *Ibid.*

<sup>84</sup> Plut., *Nic.* 23.2.

*«Atenastar gehienak, erlijio eskrupuluak buruan zituztela, itxaroteko eskatzen hasi ziren jeneralei, eta Niziasek ere, nolabait igarpenetara eta antzeko praktiketara emanegia baitzen, handik mugitzeko agindurik ez zuela emango esan zuen, harik eta, igarleen irakurketaren arabera, hiru bider bederatzi egun igaro arte»<sup>85</sup>.*

Desertore atenastarrek, haien planen berri eman zieten sirakusarrei. Hauek, presioa areagotzearen, berriro ere Portu Handiko espazio mugatua borrokatzera desafiatu zituzten. Gatazka, lurrez nahiz itsasoz eman zen, 76 ontzi sirakusarrak atenastarren 80engan nagusitu zirelarik eta Eurimedontek bizia galduz<sup>86</sup>. Sirakusarrentzat, izugarrizko garrantzia zuen garaipen hark, beraien ustez, *“egoera berriaren sortzailatzat hartuko zituzten, gainerako jendeen aurrean eta etorkizunean ere denbora luzez miresmena mereziz. Horregatik guztiagatik zen meritu handikoa euren borroka hura, atenastarrei ez ezik, berauen aliatu mordo bati garaitzearen”<sup>87</sup>.*

Atenastar buruzagiak, hornidura falta zela eta, benetan zaila zen egoera baten aurrean, erabaki bat hartzearen bildu ziren. Gotorlekua atzean utzi, eta isolatutako espazio txiki batean gaixoak eta zaurituak babestu ostean, itsasontziak militarrez ekipatuko zituzten, borrokarako prest. Gatazka irabaziz gero, Kataniarantz bideratuko ziren; galduz gero, itsasontziei su eman ostean erretiratuko ziren<sup>88</sup>. Atenastarren goibeltasuna ikustean, Niziasek estrategiaren berri emateaz gain, kemena transmititu nahi izan zien, *“borrokan ahalik gehien eutsi behar diozue, lehorrera bultza zaitzaten utzi gabe; aitzitik, talka egitean, ontzi etsaitik ez banantzeko ahalegina egin, harik eta haien hoplitak kubiartatik egotzi arte”<sup>89</sup>.*

Atenastarren intentzioak igarri bezain pronto, sirakusarrak beren ontziak prestatzeari ekin zioten. Portuaren sarreran lehendik finkatutako merkantzia ontzien bitartetik pasatuz, guardia prestatu bitartean, gainontzeko barkuak portuko espazioan zehar mugitzen ziren. Haiek, apaizen hitzei men eginez, ez zuten erasorik egingo, defentsa hutsarekin lortuko baitzuten garaipena<sup>90</sup> eta honela, atenastarrak barrerara gerturatzean, gatazka piztu zen. 180 itsasontzi, 110 atenastar eta 70 sirakusar lehiatu ziren, horren

---

<sup>85</sup> Tuc., 7.50.

<sup>86</sup> Tuc., 7.51-53.

<sup>87</sup> Tuc., 7.56.

<sup>88</sup> Tuc., 7.60.

<sup>89</sup> Tuc., 7.63.

<sup>90</sup> Plut., Nic. 25.1.

espazio murritzean borrokatzea batere erraza ez bazen ere<sup>91</sup>. Mugitzeko espazio falta zela eta, kolpe eta talka anitz eman ziren bai aliatu bai etsaien artean. Horien lekuko aparta Tuzidides dugu:

*«elkar abordatze gutxi gertatzen ziren, ezinezko zelako arraunean egin eta lerro etsaia zeharkatzea, baina borroka ekidinezinak ziren ... Ontzi bat hurbiltzean, kubiartakoek xabalina, gezi eta harri pila jaurtikitzen diote ... Askotan, ontzi batak besteari hain leku estuan eraso egitean, albotik ere hirugarren baten eraso dator, eta orduan bi ontzi (edo batzuetan gehiago) trabatzen dira nahi gabe ontzi bakar baten inguruan»<sup>92</sup>.*

Egun osoko gatazkaren ostean, atenastarrak guztiz gainbeheratuta, etsaien esku erori ez zirenak, beren kanpamendurantz ihes egin zuten. Hondamena eta etsipena nagusi zen testuinguru hartan, bazegoen bere burua hotz eta tinko mantentzea lortu zuenik ere. Demostenesek, oraindik atenastarrek 60 bat trirreme eta etsaiak 50 baino gutxiago zituztela ikusirik, indarrak batzea eta egunsentian portutik irteten saiatzea proposatu zuen. Plana bideragarria izan bazitekeen ere, jada beranduegi zen, izan ere soldaduen kemena guztiz agortua zegoen, gehienak lur jota zeudelarik. Buruzagiaren aginduei muzin egin eta lurrez ihes egitearen alde agertu ziren<sup>93</sup>.

Hermokrates jeneral azkarrak, atenastarren ihes planak susmatu, eta sirakusarrak mobilizatu nahi izan zituen gau hartan bertan, etsaiak geldiarazi eta behingoz garaitzearren. Magistratuek proposamena begi onez ikusi bazuten ere, soldaduetariko “asko, garaipenaren poztasunez, edateari emana zegoen ordurako, eta berriro une hartan armak hartu eta abiatzea baino beste edozein aginduri obeditzea espero zitekeen haiengandik”<sup>94</sup>.

### **3.5. Atenastarrak ihesean**

Hermokratesek orduan bere estrategia pertsonala eratu zuen: traidore bailiran, atenastarren kanpamendura soldadu sirakusarrak bidali zituen gau hartako martxa atzeratzeko gomendatuz, sirakusarrak erne zeudela esanaz. Hauek, zintzo, kasu egin eta beren ihesaldia atzeratzea erabaki zuten. Bitartean, tropa sirakusarrak edozein irtenbide

---

<sup>91</sup> Tuc., 7.69-70.


<sup>92</sup> Tuc., 7.70.

<sup>93</sup> Tuc., 7.71-72.

<sup>94</sup> Tuc., 7.73.

blokeatzearren mobilizatu ziren eta, halaber, atenastarren itsasontziak hondartzatik urrun utzi zituzten<sup>95</sup>.

Behin estratego atenastarrek ekipamendu eta hornidura oro prestatu ostean, zaurituak eta gaixoak bertan utzirik, Kamarina eta Gela hirien zonaldea helmuga izanik, beren bidean aurrera egin zuten<sup>96</sup>. Anapo ibaia jarraituz, aliatu sikuloekin bat egin ostean urruntzen hasiak baziren ere, sirakusarrek ez zieten horren erraz ihes egiten utzi, izan ere armada atenastarraren berrantolaketa posible baten beldur, beren bidea oztopatzeaz arduratu ziren. Etengabeko erasoak pairatu behar izan zituzten atenastarrek. Are gehiago, Gilipok destakamenduak bidali zizkien, haien martxa ahalik eta gehien oztopatzearren. Bosgarren egunean norabidea aldatu eta kontrako bidea jarraitzea erabaki zuten, Erineo ibairantz<sup>97</sup>.



Atenastarren erretiratzea Siziliatik (Monedero, 1999, 297.orriko maparen moldaketa).

Baina egoera ez zen asko hobetu atenastarrentzat. Seigarren egunerako, Demostenesen tropak inguratuta egonik, galera garrantzitsuak pairatuz, azkenerako oraindik bizirik zeuden 6.000 soldaduk euren armak baztertu zituzten amore emanaz<sup>98</sup>. Plutarkok jakinarazten digunez, Demostenes bere buruaz beste egiten saiatu bazen ere, etsaiek galaraztea lortu zuten<sup>99</sup>. Horren bitartean, Niziasen tropak aurrera egitea lortu bazuten ere, hurrengo egunean harrapatuak izan ziren eta Demostenes eta haren gizonak garaituak izan zirela jakinaraztean, honek ez zien sinetsi, eta sirakusarrak onartu ez zuten tratu bat proposatu zien: ihes egiten utziz gero, Atenas hiriaren izenean gerraren

<sup>95</sup> Tuc., 7.73-74.

<sup>96</sup> Tuc., 7.75.

<sup>97</sup> Tuc., 7.78-80.

<sup>98</sup> Tuc., 7.81-82.

<sup>99</sup> Plut., *Nic.* 27.2.



kostuak ordainduko zizkieten, zilarrezko talentu bakoitzaren truke gatibu atenastar bat eskainiaz<sup>100</sup>.

### 3.6. Atenastarren errendizioa

Ihesaldiaren zortzigarren egunean, Niziasen gizonak, goseak eta egarriak jota, Asinara ibaira iristearren aurrera jarraitu bazuten ere, etengabeko erasoak atenastarren amesgaizto bihurtu ziren. Behin ibaira heltzean, diziplina atenastarra apurtu egin zen; bertako ura edatera gerturatzean, sirakusarrek momentua aprobetxatu eta atenastarrak erasotzeari ekin zioten, ura jada, *“odolez eta basaz tindaturiko ur”*<sup>101</sup> putzua zelarik. Soilik, Nizias Giliporen aurrean errenditu zenean geldiarazi zuen azken honek erasoaldia, bizirik zirauten soldadu bakanak atxilotuak izan zirelarik<sup>102</sup>.

Nizias eta Demostenes epaiketarik gabe exekutatu zituzten, Giliporen desioen kontra, izan ere Espartara itzularazi nahi zituen, *“honek berarentzat egitandi pertsonal bikaina izango zela argudiatzen baitzuen, besteak beste, aurkari izan zituen jeneralak Lazedemongo jeneralen aurrera eramatea [batik bat] –Demostenes– haren areriorik handiena zuela Sfakteria uharteko eta Pilosko gertaerengatik”*<sup>103</sup>.

Atxilotuak, 7.000 inguru, harrobietan lan egitera eraman zituzten, gehienak gaixo, hotzak edota goseak jota bertan zendu zirelarik<sup>104</sup>. Beste batzuk esklabo bezala salduak izateko zortea izan zuten, Plutarkok dioen moduan, Euripidesen bertsoak buruz errezitatzeke gai izan zirenak, izan ere siziliarrek Euripidesen musa zuten guztien artean kuttunen<sup>105</sup>.

## 4. ONDORIOAK: GERRA AMAIERA (K.a. 404)

### 4.1. Siziliako espedizioko huts egiteak

Siziliako kanpainaren porrota, kolpe moral gogorra izan zen atenastarrentzat. Jada hasieratik Adriatikoa zeharkatu ostean dezepzioa izan zuten Regiorengandik jasotako gutxiespena, egestarren promesa ekonomikoaren balio ezarekin batu zenean. Espedizio atenastarra kondenatu zuten ekintzak ikuspuntu estrategikotik analizatuz gero, bost izan ziren huts egite nagusiak:

---

<sup>100</sup> Tuc., 7.83.

<sup>101</sup> Tuc., 7.84.

<sup>102</sup> Tuc., 7.85.

<sup>103</sup> Tuc., 7.86.

<sup>104</sup> Tuc., 7.87.

<sup>105</sup> Plut., *Nic.* 29.2-3.

1. Aliantza espero zen herrialdeen neutraltasuna, Egesta kasu.
2. Atenastar zalditeriaren gutxiagotasuna, zeinak ia ez zuen parte hartu.
3. Hasierako sorpresa faktorearekin jarraitzeko gaitasun eza, Katanian negua igaro ostean batik bat. Izan ere Sirakusa helburu nagusia zenez, udan lortutako garaipenak haien handinahia piztuta, ez zuten nahi izango hiria bereganatu bezain pronto abiatu, *neguan sartuak zirenez*<sup>106</sup>. Guzti honekin erresistentzia areagotzea besterik ez zen lortu (Fields, 2009, 79).
4. Altzibiadesen ihes egiteak izugarritzko eragina izan zuen armadan, bai soldaduen moralean, bai haien efikazian, izan ere jeneral azkar eta trebea ez ezik, espedizioaren defendatzaile eta partaide amorratu bat ere galdu zuten. Are gehiago, haren indarrarekin kontatuz gero, baliteke gerrak beste bilakaera bat izatea.
5. Lur jota zegoen Nizias jenerala kargutik ez erretiratu izana honek gutuna idatzi zuenean, eta aitzitik, errefortzuak bidali izana. Azken finean aurreikusi zitekeen porrota sustatu bestetik egin ez zuten egin (Fields, 2009, 83).

Faktore guztiok Atenas hiria sostengatzen zuten zutabeen apurketa eragin zuten eta gerraren azken gertaeren bilakaera baldintzatu zuten. Itsas armada sendo hura jada desagertu egin zen, aitzindaria zen sistema demokratikoa ere kolokan gelditu eta guztiz lur jota zegoen gizarteak, amore ematen bukatu zuen.

#### **4.2. Atenastar flotaren hondoratzea**

Atenastarren itsas indarrak lur jota gelditu zen: 12.000 hiritar eta 160 trirreme galdu zituzten. Arazoak amaitzetik urrun, Atikan zeuden, non K.a. 413 eta 412.urte hasieran zehar lazedemoniarrek Dezelia okupatuta, lurren edozein ustiapen modu deuseztatzen zuten (Fields, 2011, 87). Izan ere, atenastarren porrotarekin, Agis erregetzat zuten espartarrak konfiantzaz beteta, aliatu berriak siziliarrak izanik azkenerako nagusituko zirela konbentzituratu, Helespontoan eman zituzten hurrengo urratsak<sup>107</sup>. Egeo itsasoa zeharkatu eta Anatolia mendebaldeko kosta mehatxatzeaz gain, itsaso Beltzeko hornidura bidea ere oztopatzen zuten (Hornblower, 1985, 183). Era berean, hauek, Ziro Gaztea printze persiarraren akemenestar inperioaren laguntzaz<sup>108</sup>, atenastarren aldekoak

---

<sup>106</sup> Tuc., 6.71.

<sup>107</sup> Tuc., 8.2-3.

<sup>108</sup> X., *Hel.*, 1.4.2-3.

izandako hiriak bereganatu zituzten, hainbat norgehiagoka piztuz eta gerra jonikoei hasiera emanaz (Fernández Nieto, 1989, 40). Gerron xehetasunak zailtasunez ezagutzen ditugu, hemen amaitu baitzuen Tuzididesek bere obra. K.a. 410ean, Ziziko hirian Alzibiadesen bueltarekin, atenastar flota nagusitu bazen ere (Kagan, 2009, 252), espartarrak gailendu ziren bost urte geroago Egospotamoseko itsas batailan Lisandro jeneral lazedemoniarraren trebetasunarekin<sup>109</sup>. Paradoxikoki, atenastarrak nagusi ziren eremuan erabaki zen haien hondoratzea, hiru bider bederatzi urte iraun zuen gerran (Fields, 2011, 90).

### 4.3. Atenasen gainbehera

Flota ez ezik, Atenaseko gizartea eta demokrazia sistema ere erortzear zeuden. Hasiera batean kanpainaren alde aurkeztutako hiritarrak “*euren haserrea erakusten hasi ziren espedizioa bidali behar zela defendatzen tematu zirenen kontra*”<sup>110</sup>, eta baita Sizilia konkistatzeko itzaropenak sortu zituzten orakuluaren aurka ere (Hornblower, 1985, 183). Atzerrian zuten eragina gutxitzearen ondorioz, krisia politikara iritsi, eta bai ekklesia bai boule-a deuseztatuak izan ziren, gainontzeko magistratura demokratikoekin batera. Horren orde, politika errepresiboa zabaltzen zuen kutsu oligarkikoko *Laurehun* kontseilua eratu zen K.a. 411an (Fernández Nieto, 1989, 50). Dena den, instituzio honek gutxi iraun zuen, berehala *Bost mila* izenez ezagutuak ziren hiritarrek bereganatu zutelarik boterea epe labur baterako (Fields, 2011, 92). Ironikoki, hasiera batean behintzat, sirakusarren eta atenastarren arteko norgehiagokak alderantzizko politikak ezartzera eramanez zituzten bata eta bestea: Sirakusan neurri demokratiko bortitzagoak hartuz eta Atikan, orokorrean oligarkiaren bidea hautatuz (Fields, 2011, 22). Urtebete geroago Kleofonteren eskutik Atenasen demokrazia ezarrita, Teramenes politikariaren laguntzarekin, lazedemoniarrek proposaturiko hainbat bake akordio baztertu ostean, azkenerako K.a. 404ean bakea adostu zen. Esparta ez zen Atenasen sartuko eta hura suntsitu gabe, bere horretan utziko zuen (Kagan, 2009, 280-281).

Gerraren azken urteen bilakaera ikusita, Siziliako espedizioa atenastarren bidean zehar harri puska handia izan zela argi dago, azkenerako estropezu egin baitzuten. Tragedia greko honetan, krudelkeria, ez beste ezer, garaile irten zen gerra luze honetan, non soldaduen moralak zeresan handia izan zuen. Baliteke Mediterraneoko konkista posible

---

<sup>109</sup> X., *Hel.*, 2.1.19-23.

<sup>110</sup> Tuc., 8.1.

hura, horrenbesteko beharrea zeuden hopliten pizgarri ezin hobea izatea, gerrako azken urteetan zehar beste ikuspegi bat izango zutelarik, agian azken garaipenerantz bideratuko zielarik. Hasiera batean trebezia handiko mugimendu estrategikoa izan bazitekeen ere, lehenbizi Peloponeson nagusitasuna bermatu beharko zuketena, Niziasek bere garaian esan bezala, “*beste imperio baten bila ez hasi, lehendik daukaguna sendotu arte bederen*”<sup>111</sup>.

---

<sup>111</sup> Tuc., 6.10.

## BIBLIOGRAFIA

### ITURRI KLASIKOEN EDIZIO KRITIKOAK:

- GUNTIÑAS TUÑÓN, O. (itzul.), 1977, *Jenofonte. Helénicas*, Madril: Biblioteca Clásica Gredos 2.
- GUZMÁN GUERRA, A. (itzul.), 2014, *Tucidides. Historia de la Guerra del Peloponeso*, Madril: Alianza.
- NABERAN, J., (itzul.), 2005, *Tuzidides. Peloponesoko gerraren historia I-II*, Bilbo: Klasikoak.
- PÉREZ JIMÉNEZ, A., ORTIZ, P., (itzul.), 2006, *Plutarco. Vidas Paralelas: Alcibíades*, Madril: Biblioteca Clásica Gredos 354.
- CANO CUENCA, J., HERNÁNDEZ DE LA FUENTE, D., LEDESMA, A., (itzul.), 2007, *Plutarco. Vidas Paralelas: Nicias*, Madril: Biblioteca Clásica Gredos 362.
- RANZ ROMANILLOS, (itzul.), 1962, *Plutarco. Vidas Paralelas: Pericles*, [Los Clásicos, XVII], Madril: E.D.A.F., 257-289.

### BIBLIOGRAFIA MODERNOA:

- DOMÍNGUEZ MONEDERO, A. J., PASCUAL GONZÁLEZ, J., 1999, *Esparta y Atenas en el siglo V a.C.*, Madril: Síntesis.
- FERNÁNDEZ NIETO, F.J., 1989, *La guerra del Peloponeso*, [Historia del Mundo Antiguo. Grecia, 25, XII], Madril: Akal.
- FIELDS, N., 2009, *Siracusa, el desastre ateniense*, [RBA, Campañas, 16], Bartzelona: Osprey.
- GÓMEZ ESPELOSÍN, F.J., 2011, *Historia de Grecia en la Antigüedad*, Madril: Akal.
- HORNBLOWER, S., 1985, *El mundo griego 479-323 AC*, [Historia de las Civilizaciones Clásicas, 2], Bartzelona: Crítica.
- KAGAN, D., 2009, *La guerra del Peloponeso*, Bartzelona: Edhasa.
- PLÁCIDO, D., 1989, *La Pentecontecia*, [Historia del Mundo Antiguo. Grecia, 24, XI], Madril: Akal.
- PLÁCIDO, D., 1997, *La sociedad ateniense: la evolución social en Atenas durante la guerra del Peloponeso*, Bartzelona: Crítica.